

FERNANDO MARKINA TALDEA


• Aurkezpena

Personalki, urte batzu Eibarko Klub Deportiboko xake taldean jokatu ta gero, Gros Xake Taldearen sortzaileetako bat izen nintzen, orain dela 25 urte.

Bitartean xake klaseak "Zurriola Ikastola"n proposatu eta sartu nituen, 5 urteetan zehar monitorea izanik. Gaur egun, hogeitau urte geroago, xake ikasle kopurua 200 baino handiagoa da.

Burutzen ari naizen Taldea xakearen arloetan esperientzia duen pertsonen osatuta dago: haur mailaren sustapenean, jende helduen klaseetan, eta abar ... txapelketak antolatzen (Eli Argandoña), teknifikazio arloan (Juan Manuel Riesco), beste erakundeekin harremanetan (Juan Ezpeleta), epaile munduan (César Montolio) eta jessio ekonomiko-finantzieroan (José Angel Burgaña eta Fernando Markina).

Ahalik eta antolakuntzarik onena lortzeko Federazioaren Organigrama 5 sailetan gauzatuko da, jarraian ikus dezakezuenetz:



- **ZEIN DA GURE HELBURUA?**

Lerro bakar batean laburtuko bagenu hauxe izango litzateke: Gipuzkoako gizartean presentzia ahalik eta handiena lortzea. Hau posible da, eta lortzeko hiru puntuetan zentratuko gara batez ere:

a) Oinarrizko xakea trinko sustatu, lan proaktiboa egiñez, gero eta eskola gehiago apuntatzeko monitoreen kanpainan. Hori lortuta, ikasle kopurua handituko da. Batez ere orain eskolak apuntaturik ez daude inguruetan. Horretarako gaur egungo monitorekin kontaktuko genuke, eta kurtsiloetan formatzen ari denekin.

b) komunikabideekin harremanak hobetu, Xakearen presentzia zabaldu dadin (Txapelketak, elkarrizketak, eta abar).

c) Diru gehiago lortu Federaziorako. Azken finean diru hori ekintzak sustatzeko izango da, sponsor eta laguntze berrien bidez. Xakeak gizartean (senideak, entpresak,...) duen irudi positibaz baliotuko gara. Gure filosofia "etxea lurretik hastea" da. Ez dugu dirurik agindu nahi Federazioak une honetan soberan ez badauka, Federazioa zorretan jarriko luke eta.

- **GAUZATZEKO BESTE EKINTZAK**

- ✓ Hurbildu Federazioa Clubetara. Clubei harreta hobetzeaz gain -langile oso proactivo baten bidez- Lehendakari hautatzen banaute Clubak ikustatzera konprometitzen naiz, instalazioak ezagutzeko (batzuk dagoeneko ezagutzen ditut) eta beraien ordezkariak entzungo ditut arazoa ezagutzeko, kexak eta beraien ekarpenak. Hala ere esan nahi dut nere eskutan ez dagoena ez dudala promeitituko. Hasiera hasieratik garbi utzi nahi dut hau, badaudelako zenbat gai Asanbladak erabaki behar dituenak
- ✓ Federazioak Clubeen ideia berriak lagunduko ditu maila guztietan laguntzak lortzeko: Diputazioarekin, Udaleekin, komunikabideekin, bertako enpreseekin eta abar.... Baita umeentzako Txapelketen antolakuntzan eta Xakearen Promozioan, jakinda nere Taldearen esperientza arlo honetan.
- ✓ Federazioak Klubak lagunduko lituzke maila guztietako jectioetan: materiala eta publizitatea lortuz ahal den neurrian.
- ✓ Egungo araudia errespetatuz (Ley Vasca del Deporte) Xakeari kirol fisikoekin konparatuz tratamendu desberdina eman diezaioten borrokatuko dugu. Horrela adin txikiagoarekin has daitezten jokatzen federatutako torneotan.

LABUPENA

Jestio serio eta eraginkorra agintzen dut. Helburua, Klubeen aktibitate handiagoa lortzea izango litzateke. Batez ere adin gazteetan eta Klub bakoitzaren inguruan. Gure Taldeko partaideen ibilbideak bermatzen gaitu.

Agintzea erreza da. Baina helburu handiagoak diru gabe lortzea zaila. Aurreko urtean Federazioaren aurrekontua 88.630 €koa izan zen. Banatzeko daukagun diru kopurua handitzen ez bada, ez deritzot serio ekintza gehiago prometitzea.

Eta jakina, azpimarratu nahi dut lan egoiteko prest dagoenaren iritziak, ekarpenak eta laguntza jasotzeko.